

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

76/2023 Foru Agindua, abenduaren 29koa, 2023ko deialdian Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean gizarte- berrikuntzako sariak ematen duena

Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 21eko 744/2023 Erabakiaren bidez, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean gizarte-berrikuntzako sarietarako deialdia egin zen.

Sari hauetarako hautagaiak aurkezteko epea bukatu ondoren, erabakia 2023ko abenduaren 27an hartu da, horretarako egindako aktan adierazten den bezala.

Ondorioz, epaimahaiaren epaia ikusirik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehengoa. Ematea gizarte-berrikuntzako sari hauek:

– Lehen saria, 5.000,00 eurokoa, Lanagro Servicios S. L. sozietateari (B. P. 10032238; NIF B72676075), "Nekazaritzako sasoikako lanaren eredu berria" proiektuagatik.

– Bigarren saria, 3.000,00 eurokoa, Colegio Urkide Ikastetxea S. Coop sozietateari (B.P. 10032240; NIF F01418003) "Reset" proiektuagatik.

– Hirugarren saria, 2.000,00 eurokoa, Izkiko Landa Garapeneko Elkarteari Izki (B. P. 10005881; NIF G01052059), "Lehiamendi" proiektuagatik.

Bigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzako dagozkien zerbitzuek irabazleen alde transferentzia bidez ordain dezatela 10.000,00 euro zenbatekoa, Arabako Foru Aldundiaren 2023ko ekitaldiko gastuen aurrekontuko 25101. G/920250/48100285 "FISA sariak" partidaren kontura.

Hirugarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta honen aurka, herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan dioenarekin bat etorriz, aukerako berraztertzeo errekurtsioa aurkez dakioko ebazpena eman duen organoari, ekintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkaratu daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, ekintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 29a

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza diputatua
JONE BERRIOZABAL BÓVEDA

Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria
LEXURI UGARTE ARETXAGA